

## Bertxioa: bertso saio berezia Eskoriatzako campusean


2014/01/30

Otsailaren 13an, ostegunez, arratsaldeko 18:00etan, bertso ekitaldi berezia egingo da MUko Eskoriatzako campusean: **"Bertxioa" bertso saioa**. Ekitaldi horretan, **Amets Arzallus** 2013ko Bertsolari Txapelketako irabazleak eta **Miren Amuriza** bertsolari eta HUHEZIKo ikasle ohiak kantatuko dute Twitter bidez entzuleek jarritako gaien gainean.

Saio bitxia izango da bertsolariek eta entzuleek elkarerragingo diotelako: entzuleek bidalitako txioak eta proposatutako gaiak bilduko dira aretoan jarriko den pantaila handi batean. Geroago, bertsolariek gai horien gainean kantatuko beharko dute. Gainera, Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako bi ikasle ere egingo dute gai-jartzaileen lanak.

Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Batzordeak antolatu du "Bertxioa" ekitaldia. **Bertso saioak sarrera librea izango du.**

**Bertxioan parte hartzeko, erabili hurrengo traola: #bertxioa**



Amets Arzallus eta Miren Amuriza bertsolaria.

Eguneraketa (2014-02-27): MUtelebistak erreportajea egin du Bertxio bertso saioarena.

